

KIMIKA

4. ariketa

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Azido sulfurikoaren (H_2SO_4) eta burdinaren (Fe) arteko erreakzioan burdina (II) sulfato (FeSO_4) eratzen da eta hidrogenoa askatzen da. Kalkula ezazu:

- 2 litro H_2SO_4 0,6 M den disoluzioa erreakzionatzean askatutako hidrogeno-bolumena 1,2 atm eta 127 °C-tan (1 PUNTU)
- azido horren (H_2SO_4 0,6 M) 50 mL hartzen dira eta 200 mL ur gehitzen dira. Kalkulatu kontzentrazio berria g/L-tan (1 PUNTU)

DATUAK:

Masa atomikoak S=32, O=16, H=1

5. ariketa

PUNTUAZIOA: 1,5 PUNTU

Esan ezazu zein lotura-mota eratuko duten Z=35 eta Z=11 duten elementuek, erantzuna arrazoituz.

Adierazi elementu bakoitzaren

- konfigurazio elektronikoa, (0,5 PUNTU)
- balentziak, (0,25 PUNTU)
- izaera metalikoa eta (0,25 PUNTU)
- sortutako konposatuaren formula eta ezaugarriak. (0,5 PUNTU)

6. ariketa. FORMULAZIOA
PUNTUAZIOA: 1,5 PUNTU

Izena	Formula	Egitura
Hidrogeno kloruro		
Azido nitriko		
	Fe_2O_3	
		$\text{H} - \ddot{\text{O}}^- \quad \text{Mg}^{+2} \quad \text{^-} \ddot{\text{O}} - \text{H}$
Azido ortofosforiko		
Kobre (II) sulfuro		
Potasio nitrato		
	H_2SO_4	

		$ \begin{array}{c} \text{:}\ddot{\text{O}}\text{:} \\ \parallel \\ \text{:}\ddot{\text{O}}\text{---Br---}\ddot{\text{O}}\text{:} \text{--- H} \\ \parallel \\ \text{:}\ddot{\text{O}}\text{:} \end{array} $
Kaltzio oxido		

$ \begin{array}{c} \text{CH}_3\text{---C---CH}_3 \\ \\ \text{OH} \end{array} $	
	Propanona
$ \text{CH}_3\text{---C=C---CH}_3 \\ \quad \\ \text{H} \quad \text{H} $	
	Azido 3-metilbutanoiko
	Metilbutano